

## KONTROL MOZIOA

### Gipuzkoako Foru Aldundiak Udal Finantzaketarako Foru Funtsa murriztu izanari buruzkoa

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko ekainaren 15ean Ogasuneko batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 12an, Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren inguruko erabaki kaltegarri bat onartu zuen, aldebakarrez, zeinaren arabera Gipuzkoako udalek %20ko murrizketa izango duten beren finantzaketan.

Erabaki horren eraginez, Donostiako Udalak 30 milioi euro gutxiago izango ditu 2020ko aurrekontuan. Horrek erabat baldintzatuko du Udalaren jarduera osoa. Ekaineko batzordean, EH Bilduk egindako galderari erantzunez, Ogasuneko zinegotziak adierazi zuen Udal Gobernuak erabaki duela errekurtsorik ez jartzea Udal Finantzaketarako Foru Funtsa (UFFF) murrizteko Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak aldebakarrez hartu duen erabakiari. Era berean, galdetu genion zinegotzi ordezkariari Udal Gobernuak eskatu dion Gipuzkoako Foru Aldundiari elkarrekin adosteko UFFF itzultzeko modua. Erantzunean, zinegotziak aipatu zuen EUDELeK eta GFAk mahai bat eratu dutela, eta hor aipatu zirela hainbat gai: diru bilketaren egoera, Europatik edo Estatutik etorriko omen diren diruen banaketa, zorpetze aukera, diru laguntzen egoera...

Azkenik, galdetu genion zinegotzi ordezkariari zergatik ez dion eskatu Udal Gobernuak Gipuzkoako Foru Aldundiari bere gain har dezala zorpetzea, Gipuzkoako udalei eta Donostiakoari, bereziki, Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko laguntza emateko. Emandako erantzunean, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen arrisku partekatuko eredia dela Foru Funtsarena, eta irabaziak bezala galerak ere partekatu egiten direla.

Udalak, herritarren beharretatik gertuen dauden erakundeak izateaz gain, lehen mailako erakundeak dira, Udal Legeak aitortzen duen bezala. Zentzu horretan, euskal erakundeen arteko diru banaketan aldaketarik egon behar bada, erakunde guztien artean eztabaidatua eta adostua izan behar duela uste du EH Bilduk, aldeek informazioa modu gardenean partekatu ondoren eta, inola ere ez, aldebakarrez. EH Bilduren udal taldearen ustez, Donostiako Udala erabat baztertuta geratu da GFAREN erabaki horren aurrean, eta hori kezagarria da; areago, erabakiak izango dituen ondorioak ezagututa: 30 milioi euro gutxiago, aurten, Donostiako Udalaren aurrekontuan.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau egiten du:

## KONTROL MOZIOA

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari irmoki aldeztu ditzala Donostiako Udalaren interes ekonomikoak Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalen Finantzaketarako Foru Funtza murrizteko hartutako erabakiaren aurrean.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aktiboki aritu dadila, Gipuzkoako gainerako udalekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzeko herrialdeko udalen egonkortasun finantzarioa bermatzea.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Gipuzkoako Foru Aldundiari eska diezaiola gobernantza partekatuko foro bihur dezala Gipuzkoako Finantzen Kontseilua, bertan informazioa partekatzeko, eta proposamenak aztertze eta adosteko, eta ondoren, Gipuzkoako udalen finantzaketari buruzko Foru Arauan beharrezko isla izan dezaten.

Donostian, 2020ko ekainaren 19an

Zigor Etxeburua Urbizu  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia